

## GIG 02

## ANDUTZEKO KARBONATOSKO PLATAFORMA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Andutz mendia Geoparkeko erlieberik garrantzitsuenetako bat da. N-S norabideko mendi luzanga bat da, eta 612 m-ko altitueda du, itsasertzetik 3 kilometro eskasera egon arren.

Erliebe garrantzitsu hau Kakueta formazioko kareharri azpibertikal gogor-gogorrez osatuta dago. Kareharri horiek itxura masiboa dute, oso mikritikoak dira, eta era askotako hainbat arrezife-fosil dituzte; adibidez, koral kolonialak, koral masiboak, koral adarkatuak, errudistak, ostreidoak, beste bibalbio batzuk eta belakiak. Mikroskopioan, hainbat orbitolina eta miliolido ere hauteman daitezke. Kareharriak mendebalderantz okertuta daude, 70º inguru, eta mendebaldeko aldean, tupatsuagoak dira.

Andutz mendiko kareharriak Geoparkeko Aptiarreko arrezife-kareharririk esanguratsuenak dira. Sakonera txikiko karbonatozko plataforma tropikal batean eratu ziren. Izan ere, haietan ageri diren fosilak zona fotikokoak dira, eta zona hori 20 metroko sakonera baino sakonera txikiagoan egon ohi da, ur garbi eta zeharrargietan. Hegoalderantz, garbi ikusten da fazies aaldatu egiten dela, eta litologia tupatsua-agoak hautematen dira; horrek adierazten du sakonera handiagoa izango zela hor, eta beraz, organismo eraikitzaileek ez zituztela hain baldintza mesedegarriak izango.

Behe Kretazeoko arrezife-kareharriak gogor-gogorak izan ohi dira, eta Geoparkeko erlieberik garrantzitsuenak, hain zuzen, kareharri horiez osatuta daude.

## NOLA BERTARATU

Andutz mendiko kareharriak ikusteko, gailur aldera igo behar da Itziartik edo Murgizar baserritik.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ* edo Itziar. Mendia Zumaia inguruko edozein sektoretatik ikus daiteke.

– Geoparkeko Itxaspe.



Andutz mendiaren ikuspegi orokorra, Elorriaga aldetik ikusita.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**  
X= 555138 m / Y= 4790675 m / Alt.= 595 m



Arrezife-kareharriak Andutz mendiaren gailurrean.